

Antzerki Fisikoa I

Kurtsoa: 1

Kreditu kop.: 8

Deskribatzaileak:

- Keinu bidezko interpretazioaren printzipio estetikoak, etikoak eta humanistikoak ezagutu eta prozedura teknikoak menderatzea.
- Keinu-interpretazioaren printzipio estetikoak, etikoak eta humanistikoak ezagutu eta prozedura teknikoak menderatzea.
- Testuinguru eszenikoetan erabiltzea.
- Gorputzaren, energiaren eta grabitatearen arteko erlazioa.
- Gorputz-segmentazioko eta artikulazioko tekniken hastapenak.
- Sorkuntzan oinarritutako antzerkia egitea erraztuko duten hizkuntzak bilatzea, bizitzaren behaketatik abiatuta.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

- Interpretazioaren aurreadierazpen-teknikak eta oinarrizko printzipio psiko-fisikoak ezagutzea, mugimendutik eta inprobisazioaren oinarriko legeetatik eta jolas eszenikotik abiatuta.
- Inprobisazioaren teknikak ezagutzea, norberaren pertzepzioan eta emozioak transmititzeko gaitasunean sakontzeko.
- Keinu bidezko antzerkian antzezpeneko prozedura eta teknika desberdinak ezagutu eta menderatzea.
- Aktore-lanaren oinarriak ezagutzea, esperimentazio pertsonalaren, praktika kolektiboaren eta azterketa teorikoaren bitartez.
- Entrenamendu psiko-fisikoaren oinarrietan, akzio-partiturak egiten, jolas eszenikoan, inprobisazioan eta entseguan trebatzea.
- Aktore-azterketako prozedurak egoera dramatikoari eta pertsonaiari aplikatzea.
- Aktoreen barne-prozesuetan sakontzea.
- Haren nortasun sortzaileaz jabetu eta hura sustatzea.
- Irudimena eta adierazpen-baliabideak garatzea (gorputza/ahotsa) mugimendua eta pertsonaiaren hizkuntza sortzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

- Entrenamendu psiko-fisikoaren jarraibide indibidualak eta taldekoak bereganatu eta ikaste- eta antzeppen-prozesuko hainbat unetan erabiltzea.
- Izaera desberdin eta konplexutasuneko ariketa, inprobisazio eta egoera dramatikoetan modu organikoan antzeztu eta komunikatzea.
- Inprobisazioaren teknikak menderatzea, norberaren pertzepzioan eta emozioak transmititzeko gaitasunean sakontzeko.
- Aktore-lanerako metodoak ezagutu eta aplikatzea, ekintza fisikoetatik eta azterketa-, osaera-, bizipen- eta antzeppen-prozedura desberdinetatik abiatuta.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplikatu dakizkiokeen kompetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoia, kontzeptu teorikoak asimilatzeke eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.